

Boletín

Informativo



Agerkaria

Informazio

Merkataritza-arioko 1 zk. ko tpaitegia
Juzgado de lo Mercantil nº 1

JUZGADOS MERCANTILES

MERKATARITZA- ARLOKO EPAITEGIAK



ÍNDICE
2004

CONGRESO
ESTATAL DE
JÓVENES
ABOGADOS

ENTREVISTA:
EDMUNDO GONZÁLES
ACHUTEGUI

ELKARRIZKEIA:
EDMUNDO GONZÁLES
ACHUTEGUI

ABOKATU
GAZTEEN
ESTATUKO
KONGRESUA

2004 K0
AURKIBIOEA

Lo es la primera vez que referimos en este foro las constantes reformas de las que estamos siendo testigos en el ámbito de la Justicia y el Derecho. Quizá por su número e importancia, vivimos una sucesión de cambios de mayor relevancia en los últimos años que en generaciones anteriores. Se ha hecho patente, a caballo de estas reformas, la necesidad de una especialización de nuestra actividad, que, tras el consabido esfuerzo de adaptación, se está perfilando como una ineludible garantía de servicio por parte de todos los agentes relacionados con la Justicia. Y es que reconocemos en una sociedad de gradual complejidad y cada vez más consciente de sus derechos, nuevas exigencias que se van identificando y que merecen capítulo específico en el tratamiento que, de las mismas, empieza a hacer nuestra legislación. Los Juzgados de Menores, los Juzgados de Familia, las Seccio-

JUZGADOS MERCANTILES

nes de Urbanismo en los Tribunales de Justicia, y, como no, los Juzgados de lo Mercantil son ejemplo de ello. La creación de estos últimos se ha evidenciado, hoy por hoy, al igual de lo ocurrido con otras instituciones nacidas al albur de la creciente especialización, como imperativo, sobre todo en nuestra sede de Bilbao, en la que se prevé la creación de un segundo Juzgado de esta jurisdicción. Y es, quizá, la tradicional naturaleza mercantil y comercial de nuestra capital, la que seguramente determina la conveniencia de un nuevo Juzgado que sirva de apoyo ante una creciente actividad del existente, y ello sin vaciar de contenido a los tradicionales Juzgados de 1ª Instancia. Es de destacar, por otro lado, la preparación requerida para ostentar la titularidad del Juzgado de nuestra sede, que se estableció por concurso y oposición, y que en la actualidad ostenta el Excmo. D. Edmundo González Achutegui, a diferencia de otros partidos en los que los Juzgados de lo Mercantil se identifican todavía con los de 1ª Instancia, o en los que uno de los Juzgados de Instancia existente se separa para ejercer las funciones de la mencionada jurisdicción. En definitiva, es un ejemplo de la capacidad de adaptación de los operadores jurídicos a una sociedad cambiante y profesionalizada.

Ez da lehen aldia, orrialde hauetan, Justizian eta Zuzenbidean ematen ari diren etengabeko aldaketak jasotzen dituguna. Déla aldaketa kopuruagatik, déla beraien garrantziagatik, aurreko belaunaldietan baino mugimendu handiagoa nabaritzen ari gara azken urte hauetan. Erreforma hauen guztien karira, gure ogibide honetan espezializazioa erabat beharrezko egin zaigula nabarmena da, bai eta, dagokion egokitze ahalegin handi baten ostean, espezializazio hori zerbitzu on baten nahitaezko berme bihurtu déla ere, Justiziarekin lotutako eragile guztientzako. Bistakoa baita, geroz eta konplexuago den errealitate honetan, eta bere eskubideez jabetuago den gizarte batetan, eskakizun berriak etengabe sortzen direla eta hauek berariazko trataera eskatzen dutela gure legedian. Honen eredu dirá Adingabeen Epaitegiak, Familiakoak, Hirigintza Atalak Justizia Auzitegietan eta, ñola ez, Merkataritza-arloko Epaitegiak. Azken hauen sorrera, espezializatu beharraren areagotzeagatik jaiotako beste erakundeen parera, nahitaezkoa déla agerian gelditu da, Bilbon batez ere, jurisdikzio honetako bigarren epaitegi bat ere aurreikusi

MERKATARITZA ARI. OKO EPAITEGIAK

delako. Gure hiriburu honen merkataritza tradizioak eragin du ziur aski Epaitegi berri bat sortu behar hau, orain arteko Epaitegi bakarrak jasan duen lan gorakadaren aurrean lagungarri izan dadin, beti ere Lehen Auzialdiko Epaitegiak edukiz hustu gabe. Nabarmengarria da, bestalde, Epaitegi honen titulartasuna lortzeko eskatzen den prestakuntza handia, oposizio-lehiaketa bitartez bete zelako gaur egun Edmundo González Achutegui jaun txit gorenak duen lekua; beste barruti judizialetan egin ez den bezala, horrelako batzuetan oraindik Lehen Auzialdiko Epaitegiekin lotuta baitaude funtzio hauek, edo bestetan Lehen Auzialdiko Epaitegi bat bereizi eta jurisdikzio honetako lanak eman zaizkiolako. Azken finean, eragile juridikoek gizarte aldakor eta profesionalizatu batú egokitzeko duten gaitasunaren adibide bat da hau.

ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Decano/Dekanoa
Nazario Oleaga Paramo

**Consejo de Redacción /
Erredakzio Kontseilua**
Iñaki del Pozo Vázquez,
Amaya Letamendia,
J. Ignacio Martines Ruiz

Colaboradores/ Lankideak
Esteban Umerez,
Idoia Manzárrega,
A. Martínez,

María Utrilla,
Enima Terceño

BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA

Depósito Legal/Deposito Légal
2.069/1987



NOTICIAS



6

ALBISTEAK

JORNADAS

12



JARDUNALDIAK

**BREVE COMPARATIVA
DE LOS PROCEDIMIENTOS
PENALES VIGENTES**

18

**INDARREAN DAUOEN
ZIOOR PROZEDUREN
ALDERAKETA UBURRA**

CRISTINA JUNQUERA ABAITUA - UNICEF

21

CRISTINA JUNQUERA ABAITUA - UNICEF

EL YANTAR

22

JANARIA

**OPERA NABUCCO
UNA MAGNÍFICA PUESTA EN
ESCENA ACOMPAÑADA DE UN
ESPLENDOR CORAL**



24

**NABUCCO
EGUNDOKO ESZENARATZEA,
ABESBATZA BSKAIN**

**ENTREVISTA
EDMUNDO GONZÁLEZ ACHUTEGUI**

26



**ELKARRIZKETA
EDMUNDO GONZÁLEZ ACHUTEGUS**

JUZGADO DE LO MERCANTIL

32

MERKATARITZA ARLOKO EPAITEGIAK

BIBLIOTECA COLEGIAL

34

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

NOVEDADES LEGISLATIVAS

36

LEGEINTZ BERRIKUNTZAK

CONGRESO ESTATAL DE JÓVENES ABOGADOS

38

ABOKATU GAZTEEN ESTATUKO KONGRESUA

ÍNDICE 2004



40

2G04KQ AURKIBIDEA

PREMIOS 2004

42

2004K0 SARIAK

BILBOKO UDALEKO HIRI0IMTZA ATALAK EMAMKO KOPIA ETA ZIURTAGIRIEK SORRAZTEN DITUZTEI TASAK

Bilboko Udalak parte hartzen ez duen prozeduratan, Hirigintza Atalak ematen dituen espediente-kopia edo ziurtagiriengatik tasak frogabide hori eskatzen duen alderdiari ordainaraziko zaizkio, prozedura horretan identifikaturiko prokuradore edo abokatuaren bitartez.

KUOTAK EZ ORDAINTZEASATIKO TASAK

Joan den 2004ko abenduaren 23an eginiko batzarrean, kuotak ez ordaintzeagatik, eta telefonoz nahiz idatziz eskakizun asko egin eta gero, hurrengo bazkun-kideak bajaran ematea erabaki zuen Gobernu Batzak:

CHATERINA VILLACORTA, JOANA (6020 Bazk. Zk.)

GARCÍA LEMUS, FERNANDO (583 Bazk. Zk.)

IGARTUA BARANDIARAN, IÑIGO (1481 Bazk. Zk.)

MUÑO A ARRIGAIN, MIREN KARMELE (5730 Bazk. Zk.)

RUIZ DE HILLA VILLANUEVA, NURIA (5291 Bazk. Zk.)

ADMINISTRAZQAREKIKO AUZIETAKO ARETQAREN EPAIA

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretok "Manos Limpias" Funtzionario Publikoen Taldeak aurkezturiko errekurtsioa ezesten duen Epaiak argitaratu du. Errekurtsio hori Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2003ko urriaren 25ean harturiko akordioaren aurkakoa zen, akordio honek "Euskal Autonomi Erkidegoarentzako Estatutu Politikoa" deritzen agiria Eusko Legebiltzarrari igortzea erabaki zuela.

Errekurtsioak planteatzen dituen funtsezko kontuak ebazterakoan, Epaiak ohartarazten du (6. Oinarri Juridikoan) Funtzionario Talde errekurtsogileak aurkezturiko inpu gnazio zioak bakarrik aztertzen dituela, azpimarratzen baitu gai horiek ezestea ezin dela aurrekari modura hartu Eusko Jaurlaritzaren ekintza berberaren aurka aurkezturik dauden beste bi errekurtsioekiko.

Hori dela eta, epaiak ebazten dituen funtsezko gaiak bi dirá bakarrik:

a) Lehenik eta behin, epaiak dio Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak harturiko akordio horrek Euskal Autonomi Erkidegoaren Autonomia-Estatutua erformatzeko prozeduraren barman dauden eginbideen izara duela. Zentzu honetan, elkarte errekurtsogileak beste kalifikazio bat eman zion akordioari, Konstituzioa erformatzeko ekimentzat jo zuen, eta Eusko Jaurlaritzak horrelako erabakiak hartzeko eskumenik ez duela argu-

TASAS GENERADAS POR COPIAS Y CERTIFICACIONES CUMPLIMENTADAS POR EL ÁREA DE URBANISMO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Los recibos de las tasas que se generen por la cumplimentación por parte del Área de Urbanismo de solicitudes de copias de expedientes y certificaciones de aquellos procedimientos en los que no sea parte el Ayuntamiento de Bilbao, se girarán a la parte solicitante de la prueba en el citado procedimiento, a través de su procurador/abogado identificado en el mismo.

BAJA POR IMPAGO DE CUOTAS

En Junta de Gobierno celebrada el día 23 de Diciembre de 2004 se acordó por la Junta de Gobierno y después de haber realizado múltiples requerimientos tanto telefónicos como por escrito, la baja por impago de cuotas de los siguientes compañeros:

CHATERINA VILLACORTA, JOANA (nº coleg. 6020)

GARCÍA LEMUS, FERNANDO (nº coleg. 583)

IGARTUA BARANDIARAN, IÑIGO (nº coleg. 1481)

MUÑO A ARRIGAIN, MIREN KARMELE (nº coleg. 5730)

RUIZ DE HILLA VILLANUEVA, NURIA (nº coleg. 5291)

SENTENCIA DE LA SALA DE LO CONTENCIOSO

La Sala de lo Contencioso-administrativo del TSJ de la CA del País Vasco ha hecho pública la sentencia por la que desestima el recurso interpuesto por el Colectivo de Funcionarios Público-Manos Limpias contra el acuerdo del Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco, de 25 de octubre de 2003, por el que se dispuso la remisión al Parlamento Vasco del documento denominado "Estatuto Político de la Comunidad de Euskadi".

Al resolver sobre las cuestiones de fondo planteadas en el recurso, la sentencia (FJ6) advierte que lo hace, exclusivamente, respecto de los concretos motivos de impugnación planteados por el Colectivo de Funcionarios recurrente. A este efecto, se subraya que, en razón del particular contenido del debate procesal, la desestimación de las cuestiones planteadas no puede entenderse como un antecedente respecto de los otros dos recursos que se tramitan ante el Tribunal contra la misma actuación del Gobierno Vasco.

Por ello, las cuestiones de fondo resueltas por la sentencia son, exclusivamente, dos:

a) En primer lugar, la sentencia aprecia que el acuerdo del Consejo de Gobierno del Gobierno Vasco que se sujeta a control jurisdiccional responde a la naturaleza de los actos que forman parte del procedimiento de reforma del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En su virtud, desestima el motivo de impugnación que la asociación recurrente

fundó en la calificación jurídica del Acuerdo como una iniciativa de reforma de la Constitución para cuya adopción el Gobierno Vasco carecería de competencia legal. La sentencia, en este punto, se limita a aplicar la doctrina jurisprudencial adoptada por el Pleno del Tribunal Constitucional en la resolución de 20 de abril de 2004 por la que inadmitió la impugnación contra el mismo Acuerdo que fue interpuesta por el Gobierno de la Nación, al amparo del artículo 161.2 de la Constitución, b) En segundo lugar, la sentencia desestima el motivo de impugnación formulado por el Colectivo de Funcionarios en el que se denunciaba que la Propuesta de Estatuto Político de la Comunidad de Euskadi infringe el artículo 149 de la Constitución, en el extremo por el que se reserva a la competencia exclusiva del Estado el dictado de las bases del estatuto jurídico de la función pública. Esta cuestión, a juicio del Tribunal, excede del ámbito de control de legalidad en el que debe desenvolverse el enjuiciamiento en este proceso contencioso-administrativo.

La desestimación de este segundo motivo de impugnación guarda relación con la calificación del Acuerdo del Consejo de Gobierno como un "acto de Gobierno" (nombre legal que sustituye desde 1998 a la anterior denominación de "actos políticos"). Respecto de este tipo de

diatu. Aretoak, bere epaian, kalifikazioa beste bat déla arrazoitu eta inpu gnazio zioa ezetsi du.

Epaiak, gai honetan, Auzitegi Konstituzionalak 2004ko apirilaren 20ko ebazpenean emaniko dotrina jaso baino ez du egiten. Konstituzionalak, ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzaren akordio berberaren aurka Gobernu Zentralak, Konstituzioko 161-2. artikulua ren babespean, aurkezturiko inpu gnazioa ezetsi zuen.

b) Funtzionario Taldeak aurkezturiko bigarren inpu gnazio zioa ere atzera botatzen du epaiak; honek argudiatzen zuenaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegorako Estatutu Politikorako Proposamenak Konstituzioko 149. artikulua urratzen du, honek ezartzen duelako funtzio publikoaren estatutu juridikoarentzako oinarriak finkatzeko eskumen eskusiboa Estatuak duela. Auzitegiaren iritzian, administrazioarekiko auzietarako prozedura honetan eman behar den legaltasun kontrolaz gaindi dagoen kontu bat da hau.

Bigarren inpu gnazio zio hau gaitzesteko funtsa Gobernu Kontseiluaren Akordioaren kalifikazioa da: Auzitegiaren arabera, "Gobernu egintza" bat da Akordio hori (hau da, 1998tik hona, aurreko "egintza politikoak" terminoa ordezkatzan duen legezko hitza). Honelako ekintza publikoekiko jurisdikzioko kontrola noraino irits daitekeen gogorarazten du Epaiak: oinarrizko eskubideen

urraketak, erabakiak hartzeko dauden elementu arautuen urraketak, eta kalte-ordainak finkatzea, "Gobernu egintza" hauek eduki ekonomikoa duten kalte antijuridikoak sorrarazten dituztenean.

Epaiaren ustetan, elkarre errekurtsogileak arrazoituriko inpuñazioak ez du horrelako alderdirik jasotzen, eta inpuñazioa atzera botatzen du arrazoi horregatik. Eta gaineratzen du EAerako Estatutu Politikorako Proposamenak funtzionario publikoen inguruan jasotzen dituen eskumenak Konstituzioko 149. artikulua aurkakoak diren edo ez erabakitzea Konstituzio Auzitegiaren eskuduntza dela, ez ordea administrazioarekiko auzietako jurisdikzioarena

Ikus daitekeenez, elkarre errekurtsogileak aurkezturiko funtsezko argudioak ebazten ditu Epaiak, ez da forma kontuetan gelditzen, eta horretarako, Lehen Oinarri Juridikotik Bosgarrenera, Eusko Jaurlaritzaren defentsak errekurtsioa izapidetzera ez onartzeko egindako arrazoi-ketari erantzun negatiboa ematen dio. Puntu honetan, Epaiak alde aurretik emandako argudioak errepikatzen ditu, prozedura abiarazterakoan eta aurretiazko alegazioen izapidean emandakoak, alegia. Honakoan ere, gainera, funtsezko argudioak aztertzeko erabakia Administrazioarekiko auzietarako Aretoaren Hirugarren Átala osatzen duten bost Magistratuetatik hiruren aldeko botoarekin hartu da. Beste biek boto partikularra eman dute kontrako iritzia adierazteko, eta alderdiei jakinarazi zaizkie boto partikularrok, epaiaren testuarekin batera.

actos públicos, se recuerda en la sentencia que el control jurisdiccional sólo puede alcanzar a las pretensiones que se refieran a vulneraciones en la protección de los derechos fundamentales, a infracciones de los elementos reglados para la adopción de los acuerdos y a la determinación de las indemnizaciones que fueran procedentes cuando este tipo de "actos de Gobierno" produzca lesiones antijurídicas de contenido económico.

Aprecia la sentencia que la impugnación formulada por la asociación recurrente no se refiere a ninguno de estos extremos, por lo que debe ser rechazada. Y señala que corresponde al Tribunal Constitucional, y no a la jurisdicción contencioso-administrativa, la decisión sobre si el contenido de las competencias en materia de funcionarios públicos que se recoge en la Propuesta de Estatuto Político para Euskadi sobrepasa o no los límites establecidos en el artículo 149 de la Constitución.

Para alcanzar el enjuiciamiento sobre las cuestiones de fondo planteadas por la Asociación recurrente, la sentencia, a lo largo de los Fundamentos Jurídicos Primero a Quinto, inclusive, responde negativamente a la pretensión de inadmisibilidad del recurso formulada por la defensa del Gobierno Vasco. En este ámbito, la sentencia reitera los argumentos ya establecidos en las decisiones previas adoptadas al momento de la incoación del proceso y en el trámite denominado de alegaciones previas. De nuevo, la decisión de enjuiciar las cuestiones de fondo planteadas se adopta mediante el voto favorable de tres de los cinco Magistrados miembros de la Sección Tercera de la Sala de lo Contencioso-administrativo. Los otros dos Magistrados integrantes de la Sección sentenciadora expresan su posición adversa mediante la emisión de voto particular cuyo contenido se ha notificado a las partes junto con el texto de la sentencia principal.

CONCORD IDIOMAS ETA PRAKTIKA JURIDIKORAKO ESKOLAREN ARTEKO HARREIAK HAMA URTE BETE OITU

Ikasturte honetan hamar urte bete dirá Concord Idiomas eta Praktika Juridikorako Eskolak hitzarmen bat sinatu zutela, Eskolako ikasleek hizkuntzak ikas zituzaten, preskakuntza juridikoaren osagarri. 1994an, Eskolak hizkuntza ikastaroak sartu zituen bere modalitate eksklusiboaren ikasketa programan, eta ikasleez gain abokatu-kideek ere jaso dute honen onura, Abokatuen Bazkunak Concor Idiomas-ekin duen elkarlanak abokatu-kideak ere hart-

DÉCIMO ANIVERSARIO DE LA RELACIÓN ENTRE CONCORD IDIOMAS Y LA ESCUELA DE PRÁCTICA JURÍDICA

Este curso se han cumplido diez años del convenio suscrito entre Concord Idiomas y la Escuela de Práctica Jurídica gracias al cual los alumnos de ésta reciben clases de idiomas como complemento a la formación jurídica propia de la Escuela. En el año 1994 la Escuela de Práctica Jurídica incluyó en el programa de formación de su modalidad exclusiva los cursos de idiomas y desde entonces estas actividades han beneficiado no

sólo a sus alumnos, sino también a los colegiados, ya que la colaboración del Colegio de Abogados con Concord Idiomas se ha extendido también a éstos, siendo muchos los compañeros que año tras año perfeccionan su conocimiento de idiomas mediante la participación en los diversos cursos que para ello se organizan.

El décimo aniversario de la colaboración entre el Colegio y Concord Idiomas fue conmemorado con un acto que tuvo lugar en nuestras instalaciones y a lo largo del cual se hizo entrega a los alumnos de la última edición de la Escuela de Práctica Jurídica del diploma que acredita la superación de las pruebas del Trinity College of London que cada año se celebran dentro del ámbito del Marco Común Europeo.



zen dituelako. Asko dirá urterik urte hizkuntza ezagutza hobetzeko ikastaro hauek aprobetxatu dituzten kideak.

Bazkunaren eta Concord Idiomas-en arteko elkarlanaren hamargarren urteurrena ekitaldi batekin ospatu genuen, gure egoitzan. Ospakizun honetan, Praktika Juridikorako Eskolako azken urteko ikasleei diploma baña eman zitzairen, "Trinity College of London"

eskolaren azterketak gainditu dituztenaren frogagiri. Azterketa hauek urtero egiten dirá, Europako Marko Komunaren eremuan.

OSTALARI BAT KONFIENATU DOTE, EGILE ESKUBIDEAK ORDAINDU SABE BI TELEBISTA ERABILTZEAGATIK

Bilboko Merkataritza-arloko 1. Epaitegiak ostalari bat zigortu du, Egile eta Editoreen Sozietate Orokorari (SGAE) 1.502 Euro ordain dakizkion, bere tabernan bi telebista erabiltzeagatik entitate kudeatzaile horri egile-eskubideak ordaindu gabe.

Epaiak frogatutzat eman du tabernariak bi telebista aparailu erabiltzen dituela bere tabernan, lokala girotzeko, eta gezurtzat jotzen du tabernako jabeak argudiatutakoa, hots, bere erabilera partikularrerako zirela aparailuok.

Epaiaren arabera, erabilera partikular hori ezinezkoa da, jabearen gozamen pribaturako balira "ez lukeelako zentzurik izango bi telebista hargailu izatea, eta are gutxiago

CONDENADO UN HOSTELERO POR USAR DOS TELEVISIONES SIN PAGAR DERECHOS DE AUTOR

Un hostelero de Bilbao, JACÚ., ha sido condenado por el Juzgado de lo Mercantil nº 1 de Bilbao a pagar a la Sociedad General de Autores y Editores (SGAE) la cantidad de 1.502 euros por utilizar dos televisiones en su bar sin abonar a esa entidad gestora los derechos de autor.

La sentencia declara probado que el hostelero utiliza dos televisores en el bar para amenizar el local, entendiendo que es incierto, como alegaba el dueño del bar, que fueran para su uso particular.

Ese uso particular no es posible, según la sentencia,

porque si fuera para el disfrute personal del dueño "no tiene sentido que se tengan dos aparatos receptores y menos aún que cualquier usuario del local pueda verlo". En ese punto insiste el fallo que "si sólo lo va a disfrutar el demandado, no hay razón para que se tengan altavoces instalados en el local".

La resolución judicial afirma que la actual Ley de Propiedad Intelectual obliga a abonar el canon correspondiente por la utilización pública del derecho del autor, por el cual "una pluralidad de personas pueda tener acceso a la obra sin previa distribución de ejemplares a cada una de ellas".

Eso es lo que sucede, prosigue la sentencia, con "los receptores de televisión, que suelen estar colocados en bares y restaurantes a una buena altura para permitir que cualquiera pueda observarla". "De hecho lo que se pretende es eso", añade el fallo, es decir, "que cualquiera pueda observarlo porque de esta manera se incrementa la clientela en según qué ocasiones, o al menos se ofrece un servicio añadido a los propios de un establecimiento de esta clase".

La sentencia considera que "el negocio dispone así de una prestación añadida que permite mejorar su atractivo frente a otros, haciéndolo más competitivo", por lo que surge la obligación de pagar los derechos de autor a los que ha sido condenado el establecimiento, que también ha sido obligado al pago de las costas judiciales a las SGAE.

La sentencia ha sido recurrida por el hostelero para que conozca del recurso la Audiencia Provincial de Bizkaia.

tabernaren edozein erabiltzailek ikusi ahal izatea". Epaiak ere azpimarratzen du "demandatuak baino ez baditu erabiliko aparailuok, ez du zentzurik tabernan zehar bozgorailuak instalaturik izatea".

Ebazpen judizialak dio egungo Jabetza Intelektualaren Legeak dagokion kanona ordaindu beharra ezarri duela, egile-eskubidea publikoki erabiltzeagatik. Erabilpen publiko honen poderioz, "persona ugarik lana eskura dezake, aldez aurretik lañaren aleak euren artean banatu gabe".

Hori da, Epaiaren arabera, "edozeinek ikusi ahal izateko altuera batean taberna eta jatetxeetan jartzen diren telebista hartzeko aparailuekin" gertatzen dena. "Hain zuzen, hori da gura dena", gaineratzen du ebazpenak, "telebista edozeinek ikusi ahal izatea, hórrela zenbait unetan bezero gehiago datorrelako, edo gutxienez bezeroei zerbitzu erantsi bat eskaintzen zaielako, honelako lokalen zerbitzu propioez bestelakoa".

Epaiaren ustetan, "negozioak hórrela prestazio erantsi bat lortzen du, beste negozio batzuen aurrean bere erakargarritasuna hobetzen dueña, lehiakortasuna areagotuz". Hori déla eta, egile-eskubideak ordaintzeko betebeharrak sortzen da, eta húrriek ordaintzeko zigorra ezarri dio tabernariari, judiziozko kostuekin batera.

Epaiaren aurka apelazio helegitea aurkeztu du tabernariak, auzia Bizkaiko Probintzi Auzitegiak ebatz dezan.

HOMENAJE A COMPAÑEROS VETERANOS

El pasado mes de Noviembre, en La Sociedad Bilbaína, se celebró un año más la comida homenaje a los compañeros que cumplían los cuarenta y cincuenta años de colegiación. El acto concluyó con la entrega de sendos obsequios conmemorativos de tal evento, de



los que hizo entrega el Decano, Nazario Oleaga. El Colegio en nombre de nuestro colectivo desea felicitar a: Francisco Prado Oliveros, Vicente García Serrano, Cirilo Sánchez Moreno, M^a Angeles Ruiz Menchaca, Feo. Javier Oleaga Echeverría, José Bustamante Bricio y José M^a Buerba Arena por sus cincuenta años en el ejercicio de la profesión, y a Víctor Guerra Cámara, Pedro M³ Olabarrieta Suárez, Marcelino Otero Ramos, José R. Palacio Sánchez-Izquierdo, Emilio López de Santamaría y Fernando Vizcaya Retana por sus cuarenta años de colegiación y pertenencia a nuestro gremio.

KIDE BETERANOEI OMENALDIA

Joan den azaroan, Sociedad Bilbainan, urtero legez ospatu genuen berrogei eta berrogeita hamar urteko jarduna bete duten kideen omenezko bazkaria. Ekitaldia omenaldiaren oroigarrien banaketarekin amaitu zen, Nazario Olega Dekano jaunak banatu zituelarik. Bazku-

nak, gure kolektibo osoaren izenean, honakoak zoriundu nahi ditu: Francisco Prado Oliveros, Vicente García Serrano, Cirilo Sánchez Moreno, M³ Angeles Ruiz Menchaca, Feo. Javier Oleaga Echeverría, José Bustamante Bricio eta José M⁸ Buerba Arena, jardunean berrogeita hamar urte bete izanagatik, eta Víctor Guerra Cámara, Pedro M^a Olabarrieta Suárez, Marcelino Otero Ramos, José R. Palacio Sánchez-Izquierdo, Emilio López de Santamaría eta Fernando Vizcaya Retana, Bazkunean eta gure gremio honetan berrogei urte aritzeagatik.

TRATU TXARREN KONTRAKO IKASTAROAK

Joan den abenduaren 13an eta 14an, Abokatuen Elkargoko ekitaldi-aretoan, Etxeko Indarkeriari buruzko ikastaroa egin zen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta Legelarien Euskal Kontseiluak antolatuta.

Ikastaroa Juana Balmaseda gure Elkargoko dekanordeak aurkeztu zuen. Ikastaroaren helburua genero-indarkeriaren arloko lege-aldaketak azaltzea eta baloratzea zen, baita biktimen egoera aztertzea ere. Era berean, Genero Indarkeriaren aurkako Legea berehala indarrean sartuko dela eta aldaketa ugari ekarriko dituela aurreratu zuen. Bidé batez, lege berriari buruzko ikastaroak udaberrian egingo direla iragarri zuen.

Ondoren, Consuelo Barea Payueta doktoreak, osagile psikoterapeutak, hartu zuen hitza eta "Stockholmeko sindromearen azterketa genero-indarkeriaren biktimengan: ondorio juridikoak" izeneko hitaldia eman zuen.

Hitzaldiaren hasieran, azalpen didaktikoa eman zuen berak "Y eredu" deitzen duen horretan oinarrituta. Eredu hori erabili zuen biktimak dituen faseak eta gizar-teak prozesu horretan duen zeregina deskribatzeko.

Consuelo Barea Payueta doktoreak azpimarratu zuen genero-indarkeriaren arrazoi eragileak bereizkeria eta sexismoa direla, baita indar fisikoak emandako boterea eta gizar-teak gizonezkoari emandako pribilegioak ere; erasotzailea eta buruko gaixotasuna lotu ezin direla ñabartu zuen, izan ere, erasotzaileen %20k bakarrik dute buruko patologiaren bat (adib. eskizofrenia, paranoia, nortasun-nahastea...).

Hizlariaren berbetan, genero-indarkeriako egoera guztiek oinarritzko ondorio batzuk sortzen dituzte beti: depresioa, traumaosteko estresa eta Stockholmeko sindromea; tratu txarrak jasan dituzten emakumeek, une batean edo bestean, goiko hiru ondorioetako bat gutxienez izaten du.

CURSO SOBRE VIOLENCIA DOMÉSTICA

Los pasados 13 y 14 de diciembre tuvo lugar en el Salón de Actos del Colegio de Abogados el Curso sobre Violencia Doméstica organizado por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y el Consejo Vasco de la Abogacía.



La presentación del Curso corrió a cargo de Juana Balmaseda, Vice-decana de nuestro Colegio, quien marcó como objetivo del Curso la explicación y valoración de las modificaciones legales en materia de violencia de género y el análisis de la situación de las víctimas. Asimismo, avanzó la inminente entrada en vigor de la Ley Integral contra la Violencia de Género con numerosas modificaciones, aprovechando la ocasión para anunciar la organización de cursos sobre la nueva ley para primavera.

A continuación, tomó la palabra la Doctora Consuelo Barea Payueta, Médica Psicoterapeuta, quien abordó la ponencia "Análisis del Síndrome de Estocolmo en las Víctimas de Violencia de Género: Consecuencias Jurídicas".

Comenzó con una didáctica exposición basada en lo que ella denomina el "modelo en Y", modelo que utiliza para describir las distintas fases por las que atraviesa la víctima y el papel de la sociedad en este proceso.

Hizo especial hincapié en que las causas que originan la violencia de género son la discriminación y el sexismo, unido al poder que le aporta su propia fuerza física y los privilegios que le concede la sociedad al varón; matizando que no se puede vincular al agresor con una enfermedad mental, ya que de hecho sólo el 20% de los agresores padecen alguna patología mental (ej esquizofrenia, paranoia, trastorno de personalidad,...).

Señaló que en toda situación de violencia de género existe una terna fundamental de secuelas: depresión, estrés post-traumático y síndrome de Estocolmo; cualquier mujer maltratada, en un momento u otro, padece por lo menos una de las tres secuelas anteriores.

Analizó el comportamiento de los agresores en violencia doméstica señalando que existe una tendencia cíclica que se resume en una primera fase de aumento de la tensión, sin motivo aparente o por razones diversas circunstanciales; seguida de una explosión de violencia, física o psíquica, como instrumento para conseguir poder y control y culminada por la denominada fase de Luna de Miel, en la que el agresor manipula afectivamente a la víctima, pidiéndole perdón, llorando, prometiéndole cambiar, etc, iniciando un nuevo ciclo en el que él intenta crear miedo y obediencia más que respeto e igualdad.

Seguidamente, analizó el Síndrome de Estocolmo consistente en unas distorsiones emocionales, cognitivas y conductuales. En relación a las primeras, la víctima potencia las emociones positivas, cualquier comportamiento mínimamente amable se interpreta como una cualidad, generosidad o delicadeza especial, negando igualmente cualquier emoción negativa, minimizando el abuso y negando el terror y la rabia.

En segundo lugar, en lo referente a distorsiones cognitivas, la víctima cambia su punto de vista por el del maltratador y aprende a conocer al detalle su comportamiento, con lo que pretende adelantarse en la medida de lo posible a sus brotes de violencia y cree que ama apasionadamente al agresor.

En cuanto a las distorsiones conductuales, desarrolla mecanismos de defensa ante la violencia por medio de la simulación (disimula sus sentimientos reales), intentando ganarse su compasión, comportándose añiadamente, etc.

En sesión de tarde, depuso Caries Cruz Moratones, Magistrado de la Audiencia Provincial de Girona y Portavoz de la Comisión de Coordinación de Violencia Doméstica de Girona quien a lo largo de su presentación realizó un excelente análisis de las modificaciones de la normativa penal y en relación a la orden de protección, señaló que para que se proceda a la adopción de una orden de protección deben existir indicios fundados de la comisión de un delito o falta contra la vida, integridad física o moral, libertad sexual, libertad o seguridad; que tal acción esté dirigida contra alguna de las personas recogidas en el art.



Consuelo Barea Payueta

Hizlariak etxeko indarkeriako erasotzaileen jokabidea aztertu zuen. Beraren ustez, joera zikliko bat dago, honela labur daitekeena: lehenengo fasean tentsioak gora egiten du, ageriko arrazoirik gabe edo inguruabarreri lotutako hainbat arrazoi direla bidé; ondoren, indarkeria-leherketa bat izaten da, fisikoa edo psikikoa, boterea eta kontrola lortzeko tresna gisa; amaitzeko, eztei-bidaia izeneko fasea izaten da, eta, horretan, erasotzaileak biktima modu afektiboan manipulaten du, barkatzeko eskatzen dio, negar egiten du, aldatu egingo déla zin egiten dio, etab. Hórrela, beste ziklo bat hasten da eta erasotzaileak beldurra eta mendekotasuna sortu nahi ditu, errespetua eta berdintasuna baino gehiago.

Ondoren, Stockholmeko sindromea aztertu zuen, hots, distortsio emozional, kognitibo eta konduktualek osatutakoa. Lehenengoei dagokienez, biktimak emozio positiboak indartzen ditu, eta adeitsua den jokabide oro, nolakotasun, eskuzabaltasun edo samurtasun berezi gisa interpretatzen du; era berean, emozio negatibo guztiak ukatzen ditu, abusua minimizatzen du eta beldurra eta amorrua ukatu.

Distortsio kognitiboei dagokienez, biktimak tratatu txarrak ematen dituenaren ikuspuntua hartzen du eta horren jokabidea zehatz ezagutzen ikasten du. Modu horretan, ahal den neurrian indarkeria-jokabideei aurrea hartzen ahalegintzen da eta erasotzailea bihotzez maite duela uste du.

Distortsio konduktualei dagokienez, indarkeriaren aurrean defentsa-mekanismoak garatzen ditu simulazioaren bidez (benetako sentimenduak disimulatzen ditu), errukia lortzen ahalegintzen da, umeen moduko jokatzeko du, etab.

Arratsaldeko saioan, Caries Cruz Moratones, Gironako Probintzia Auzitegiko magistratua eta Gironako Etxeko Indarkeriaren Koordinazio Batzordeko bozeramailea, izan zen hizlaria. Aurkezpenean, zigor-araudiaren aldaketak azaldu zituen eta babes-aginduari dagokionez, adierazi zuen babes-agindua erabakitzeke, bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, askatasunaren edo segurtasunaren aurkako delitu edo faltaren zantzu oinarrituak egon behar direla; ekintza hori ZKren

173.2 art.ra bildutako pertsonaren baten aurka egin behar déla eta biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa egon behar déla, PKLren 544. ter artra bildutako neurriak hartzea eskatzen dueña. Hau da, aurrean adierazitako betekizunen bat ez dagoenean, babes-aginduren eskaera ez da onartu behar, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren irizpidearen arabera (3/2003 zirku-larra, abenduaren 30ekoa).

Era berean, entzunaldia egiteko aurreikusitako hiru eguneko gehienezko epea betetzen ez bada, ez-onartze hori irregulartasuna déla joko litzateke, baina inoiz ez deuseztasun-arrazoia.

Amaitzeko, aipamen berezia egin zion entzunaldia ete-teko aukerari: hasteko, fiskalari, biktimari (eskatzailea), horren abokatuari, salatuari edo horren abokatuari deialdia behar den moduan egin ez bazaie, entzunaldia bertan behera utzi eta deialdia berriro egin beharko da, PKLren 544. bis art.aren edo KZren 158. arlaren babesean bidezkoak diren kautela-neurriei kalterik egin gabe. Babes-agindua adosten duen entzunaldia bertan behera utzi beharko da baldin eta deialdia legearen arabera egin ondoren justifikaziorik gabe bertaratzen ez badira fiskala, salatuaria, biktima edo horren abokatuaria; hala ere, salatuaren abokatuaria bertaratzen ez bada, entzunaldia eten egingo da, azken hori bertaratzea saihestezina baita, salbu eta falta bat izate-agatik entzunaldia falta-epaiketaren prozeduran egiten denean, kasu horretan defentsa teknikoak ez da-eta aginduzkoa.

Horren ostean, Idoia Igartuak eta Lourdes Lorentek hartu zuten parte, biak Delituen Biktimak Artatzeko Zerbitzuko kideak. Bien esanetan, azkenaldian (2003ko abuztua) zerbitzua etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduen koordinazio-zentro bihurtu da.

Zerbitzuak arlo horretan esku hartzen duten sektore juridiko eta sozialetan antzemandako disfunczioak azaldu zituzten, besteak beste: Justizia Administrazioari dagokionez, babes-agindua gaizki erabiltzen déla adierazi zuten, ez baita tratu txarren kasuan bakarrik aplikatzen, baita bikotearen gatazka-egoeretan ere; ez dago esku-hartze oso eta pertsonala biktimarekin, erantzun judiziala bat-batekoa baita (beharrezkoa izango litzateke baliabide pertsonalak, loturak, indarkeriazikloak... baloratzea); jokabide paternalista dago, gehiegi babestekoa, biktimari prozesuan inongo erantzukizunik ematen ez diona.

Etxeko indarkeriaren arloko ofizioko txandako abokatuak dagokienez, ñabartu beharko litzateke txanda hori etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimei zuzenduta dagoela, eta txanda horren helburua biktima zigor-prozeduretan eta/edo familia-prozeduretan erabat defendatzea déla, baita betearazpenean, baliabideetan, neurrien aldarazpenean, eta abarretan ere. Horrez gain, Ofizioko Txandako Erregelamenduak

173.2 CP y que exista una situación objetiva de riesgo para la víctima que requiera la adopción de las medidas contempladas en el art. 544. ter LECr, es decir, que en el caso de que no concorra uno de los requisitos señalados anteriormente la solicitud de orden de protección debe ser inadmitida de plano según el criterio de la Fiscalía General del Estado (Circular 3/2003, de 30 de diciembre).

Asimismo, destacó que si no se cumple el plazo máximo de tres días previsto para la celebración de la audiencia, tal incumplimiento se consideraría como una irregularidad pero nunca como un motivo de nulidad.

Finalmente, hizo una especial mención a la posibilidad de suspensión de la audiencia: en primer lugar, en el caso de que el Fiscal, la víctima (solicitante), su letrado, el denunciado o su letrado no hayan sido debidamente citados la audiencia deberá suspenderse y deberá ser nuevamente convocada sin perjuicio de las medidas cautelares que procedan al amparo del art. 544. bis LECr o del art. 158 CC. La audiencia en la que se acuerde la orden de protección, deberá suspenderse si, habiendo sido legalmente citados, no compareciesen injustificadamente el Fiscal, el denunciado, la víctima o su letrado; sin embargo, la ausencia del letrado del denunciado sí la suspende ya que su asistencia es ineludible, salvo cuando por tratarse de una falta la audiencia se celebre en el procedimiento del juicio de faltas en cuyo caso la defensa técnica no es preceptiva.

A continuación, intervinieron Idoia Igartua y Lourdes Lorente, miembros del Servicio de Atención a las Víctimas de Delitos quienes señalaron que, en fechas recientes (agosto del 2003), este servicio se ha convertido en centro de coordinación de las ordenes de protección para las víctimas de la violencia doméstica.

Hizo una relación detallada de las disfunciones que desde el Servicio se han detectado en los diversos sectores jurídicos y sociales intervinientes en esta materia, entre las que destacamos las siguientes: respecto a la Administración de Justicia, señaló que se da una mala utilización de la orden de protección con fines ajenos a la misma ya que no sólo se aplica en las situaciones de maltrato sino que se extiende a las conflictivas de pareja, no hay una intervención integral y personal con la víctima debido a la inmediatez de la respuesta judicial (sería necesario valorar los recursos personales, vínculos, ciclo de violencia,...), existe una actitud paternalista, sobreprotectora que no responsabiliza a la víctima en su propio proceso.

En relación a los letrados del turno de oficio de violencia doméstica, señaló que sería necesario matizar que este turno está dirigido a las víctimas de la violencia doméstica y/o agresiones sexuales y que su objetivo es la defensa integral de la víctima en los pro-

cedimientos penales y/o de familia que hayan de iniciarse, incluida la ejecución, recursos, modificación de medidas, etc. Además, es necesario que, según exige el Reglamento del Turno de Oficio, la primera asistencia se realice personalmente (y no telefónicamente) así como que se clarifique a la víctima la gratuidad de la primera asistencia, no así de las posteriores intervenciones ya que el turno de oficio no supone la concesión de la asistencia jurídica gratuita, la cual deberá ser solicitada por la víctima para su reconocimiento.

Finalmente, señalaron que el propio Servicio de Atención a la Víctima no tiene conocimiento de todas las ordenes de protección acordadas por falta de remisión de las mismas por los órganos judiciales.

El segundo día del Curso, en sesión de mañana, se inició con la intervención de Ana Elorri Gascón, Fiscal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y Fiscal Coordinadora de Violencia Doméstica que expuso los criterios de intervención desde la Fiscalía. En relación a las modificaciones penales en la materia, destacó que la más importante de todas ellas es la pena privativa de derechos consistente en la prohibición de aproximación a la víctima u otras personas, que lleva aparejada la consecuencia jurídica de suspensión del régimen de visitas, comunicación y estancia respecto de los hijos fijado en sentencia civil hasta el total cumplimiento de la pena impuesta de prohibición de aproximación; si bien a pesar de que de la lectura del precepto se pudiese considerar que esta medida opera "ex lege", es decir, automáticamente, según el criterio de la Fiscal la suspensión del régimen de visitas sería aconsejable para el caso de que el maltrato también haya recaído sobre los hijos ya que de lo contrario, se considera que la medida resulta desproporcionada, (art. 48

eskatzen duenez, beharrezkoa da lehenengo asistentzia aurrez aurre egitea (eta ez telefonoz), eta biktimari argitzea lehenengo asistentzia doakoa dela, baina hurrengo esku-hartzeak ez; izan ere, ofizioko txandak ez du doako laguntza juridikoa ematen, eta horrelakorik nahi izanez gero, biktimak eskatu beharko du.

Amaitzeko, Biktima Artatzeko Zerbitzuak adostutako babes-agindu guztien berri ez duela adierazi zuten, órgano judizialek ez baitzikiere igortzen.

Ikastaroaren bigarren egunean, goizeko saioan, Ana Elorri Gascónek parte hartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko fiskala eta Etxeko Indarkeriaren arloko fiskal koordinatzailea. Fiskaltzak esku hartzeko dituen irizpideak azaldu zituen. Arlo horretako zigor-aldaketei dagokienez, garrantzitsuen



Ilmo. Sr. D. Carles Cruz Moratones

eskubideez gabetzen duen zigorra da, hau da, biktimarengana edo beste pertsona batzuegana hurbiltzea debekatzen dueña. Horrek berarekin dakar epai zibilean finkatutako seme-alaben bisita-erregimena, komunikazioa eta egonaldia eteteko ondorio juridikoa, hurbiltzeko debeku-zigor osoa bete arte; hala ere, manua irakurtzean neurriak "ex lege", hau da, modu automatiko

an, funtzionatzen duela pentsa daitekeen arren, fiskalaren irizpidearen arabera, bisita-erregimena etetea komenigarria da tratu txarrak seme-alabei ere egiten bazaizkie, bestela, neurria neurrigabea déla jotzen da eta. (ZKren 48. art.)

Era berean, epaileak epaian askatasunaz gabetzen duen zigorra eta ZKren 48. art.ko debeku bat edo zenbait ezartzen baditu, azken horien iraupena askatasunaz gabetzen duen zigorraren iraupena baino handiagoa izan beharko da. Arauketa horren bidez lortu nahi da kondenatuak, askatasunaz gabetzen duen zigorra bete ostean, debeku-neurri batzuk izatea, besteak beste, biktiraarengana hurbildu ez dadin. Horrekin batera, askatasunaz gabetzen duten zigorrak eta debeku-neurriak aldi berean betetzea ezarri da, espetxetik irteteko baimenean biktiraarengana hurbiltzea saihesteko.

Babes-aginduari dagokionez, hizlariak azaldu zuen, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren abenduaren 30eko 4/2003 zirkularraren ostean kasu batean ere ez déla eskatuko kausa artxibatzea biktimak uko egin duelako, betiere, prozeduran aurrera egiteko frogak badaude; era berean, agindua ez da indarrrik gabe utziko biktimak hala eskatzen duelako, Auzitegi Goreneko jurisprudentziaren arabera kautela-neurriei ezin baitzaie uko egin, ondasun juridiko xedaezinak babestu nahi dituzte eta; dena den, epaileak erabaki beharko du kautela-neurriak indarrean jarraituko duen ala ez, kasu bakoitzeko inguruabarrak haztatuz.

Amaitzeko, ikastaroa Maite Mateos Gonzálezek itxi zuen, Bilboko Udaleko gizarte-langilea eta Antropologian doktorea. Hizlariak bere ekipotik biktimari laguntzeko egiten den lana azaldu zuen.

Zehazki, arazorik handiena harrera-pisuen inguruan planteatzen déla azaldu zuen. Doako eta aldi baterako zerbitzu horretaz gozatzeko, nahitaezkoa da salaketa jarrita izatea edo jartzeko asmo argia izatea, bestela, erakundeek familiaren egoitza uztea babestuko lukete eta. Horrez gain, eskatzaileak ez ditu osasun-arazoak izan behar (beharrezkoa da emakume autonomoa izatea). Dena den, azken betekizun horretan salbuespenak egon daitezke baliabideak gehitzen diren heinean.



Maite Mateos Gonzales

De igual manera, destacó que si el juez impone una pena privativa de libertad en la sentencia y una o varias prohibiciones del art. 48 CP, deberá establecer por un tiempo superior al correspondiente a la pena privativa de libertad. Con esta regulación, se pretende conseguir que una vez cumplida la pena privativa de libertad el condenado tenga unas medidas de prohibición posteriores que le impidan, por ejemplo, acercarse a la víctima, entre otras. Al mismo tiempo, se dispone el cumplimiento simultáneo de las penas privativas de libertad y las medidas de prohibición para evitar que en un permiso de salida del centro penitenciario pueda acercarse a la víctima.

En cuanto a la orden de protección, explicó que, tras la Circular 4/2003, de 30 de diciembre, de la Fiscalía General del Estado, en ningún supuesto se solicitará el archivo de la causa por renuncia de la víctima, siempre y cuando existan pruebas para continuar adelante con el procedimiento; también destacó que no se procederá al levantamiento de la orden de protección porque así lo haya solicitado la víctima ya que, conforme a la jurisprudencia del Tribunal Supremo, las medidas cautelares son irrenunciables porque tratan de proteger bienes jurídicos indisponibles; será el juez, en todo caso, quien debe decidir sobre la continuidad de la medida cautelar ponderando las circunstancias en cada caso.

Finalmente, el Curso fue clausurado por Maite Mateos González, Trabajadora Social del Ayuntamiento de Bilbao y Doctora en Antropología, quien explicó el trabajo que desde su equipo se realiza para ayudar a la víctima.

En concreto, comentó que la principal problemática se plantea en relación a los pisos de acogida, servicio gratuito y temporal, para lo cual es necesario haber interpuesto o tener clara intención de interponer denuncia, ya que no señaló que, de lo contrario, se estaría apoyando desde las instituciones el abandono del domicilio familiar y además la solicitante no debe tener problemáticas de salud añadida (es preciso que sea una mujer autónoma), si bien pueden existir excepciones a este último requisito a medida que aumenten los recursos.

PONENTES:

Consuelo Barea Payueta, Médica Psicoterapeuta

Caries Cruz Moratones, Magistrado de la Audiencia Provincial de Girona y Portavoz de la Comisión de Coordinación de Violencia Doméstica de Girona

Idoia Igartua y Lourdes Lorente, miembros del Servicio de Atención a las Víctimas de Delitos

Ana Elorri Gascón, Fiscal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y Fiscal Coordinadora de Violencia Doméstica

Maite Mateos González, Trabajadora Social del Ayuntamiento de Bilbao y Doctora en Antropología

HIZLARIAK:

Consuelo Barea Payueta, osagile psikoterapeuta

Caries Cruz Moratones, Gironako Probintzia Auzitegi-ko magistratua eta Gironako Etxeko Indarkeriaren Koordinazio Batzordeko bozeramailea

Idoia Igartua eta Lourdes Lorente, Delituen Biktimak Artatzeko Zerbitzuko kideak

Ana Elorri Gascón, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko fiskala eta Etxeko Indarkeriaren arloko fiskal koordinatzailea

Maite Mateos González, Bilboko Udaleko gizarte-langilea eta Antropologian doktorea

TABLÓN DE ANUNCIOS

ALQUILU DESPACHO DE ABOGADOS en Las Arenas, Calle M^º Cristina, en edificio moderno de oficinas, climatizado, exterior, luminoso, amueblado, impecable, may, archivo, varias posibilidades de distribución, 550 euros/mes más comunidad. Tfno.: 656713233 y 944801233

CAMBIO DE DOMICILIO PROFESIONAL: De Roberto Icazuriaga Bareño, c/ Reina María Cristina, n^º 10-3^ªE, 48931 Las Arenas (Getxo), Tel./Fax: 944 802 068.

SE BUSCA LETRADO EN EJERCICIO, con preferencia en Laboral para compartir despacho en funcionamiento en el centro de Bilbao, Tel.: 665 206 359.

SE BUSCA LETRADO-A EN EJERCICIO, con preferencia en Familia, Laboral, y/o Fiscal para compartir despacho en funcionamiento en el centro de Bilbao. Teléfono de contacto 944 103 940.

INDARREAN DAUDEN ZIGOR PROZEDUREN ALDERAKETA LABURRA

Isabel García Notario / Abogada

Arauk gizartearen errealitatera egokitu behar direlakoan, legegileak bost zigor prozedura ezberdin arautu ditu, orokorrean auzipetutako gertaeren edo ezarri beharreko zigorren arabera sailka daitezkeenak.

ZIGOR PROZEDURAK

Judizio Azkar bat, Prozedura Laburtu bat edo Prozedura Arrunteko Sumario bat ireki behar den zehazteko, auzipetutako delituentzako aurreikusitako zigorrari erreparatu behar zaio orokorrean, hurrengo taularen arabera:

JUDIZIO AZKARRA	PROZEDURA LABURTA	SUMARIOA
<ul style="list-style-type: none"> • Espetxe zigorrak: 5 urte arte. • Bestelako zigorrak: 10 urte arte • Delitu loturik ez 	<ul style="list-style-type: none"> • Espetxe zigorrak: 9 urte gorakoak • Bestelako zigorrak • Delitu lotuak. • Delituari lotutako faltak 	<ul style="list-style-type: none"> • Espetxe zigorrak: 9 urtetik arte • Delitu lotuak. • Delituari lotutako faltak

Hala ere, delituen auzipetze azkarrerako prozedura (**Judizio Azkarra**) aplikatu ahal izateko, Prozedura Kriminaleko Legeko 795. artikulua ezartzen dituen betekizunak ere eman behar dirá.

Bestalde, **Falta Judizioan** Zigor Kodeko III Liburuak aurreikusten dituen jokabideak auzipetzen dirá (déla berehalako prozedura bitartez, déla prozedura arruntean, auzipetu beharreko gertaeren arabera), eta **Zinpekoen Epaimahaiaren aurreko Judizioan** 5/1995 Lege Organikoak jasotako delituak ikusten dirá, bai eta delitu lotuak ere, zenbait salbuespenekin.

ESKUMENA

Instrukzioa egiteko, alde batetik, eta epaitzeko, bestetik, eskumena duten Epaitegi eta Auzitegiak ezberdinak dirá prozedura bakoitzean.

Falta Judizioan ez dago, bere horretan, instrukzio faserik, eta epaitzeko eskumena Bake-Epaileak edo Instrukziokoak du, auzipetu beharreko faltaren arabera; **Judizio Azkarrean**, instrukzioa Instrukzio Epaitegiak darama eta epaitzea Zigor Arloko Epaite-

BREVE COMPARATIVA DE LOS PROCEDIMIENTOS PENALES VIGENTES

El hecho de que la realidad normativa se haya ido adaptando a la realidad social ha implicado la regulación por el legislador de hasta cinco procedimientos penales diferentes, en función, por lo general, de los hechos que se enjuician o de las penas a imponer.

PROCEDIMIENTOS PENALES

La determinación de cuando procede incoar un **Juicio Rápido**, un **Procedimiento Abreviado** o un proceso **Sumario Ordinario** se realiza, en términos generales, en función de la pena prevista para los delitos cometidos, en base al siguiente cuadro:

JUICIO RÁPIDO	PROCEDIMIENTO ABREVIADO	SUMARIO
<ul style="list-style-type: none"> • Hasta 5 años de prisión • Otras penas: hasta 10 años • No delitos conexos 	<ul style="list-style-type: none"> • Hasta 9 años de prisión • Otras penas • Delitos conexos • Faltas incidentales 	<ul style="list-style-type: none"> • Superior a 9 años de prisión • Delitos conexos • Faltas incidentales

